

# ITSASONTZI BATEN ZATIAK

Zein pirata mota izango zaren aukeratua duzu dagoeneko. Oraingo honetan berriz zein ontzi mota erabiliko duzun aukeratu beharko duzu. Aukeraketa on bat egiteko ontzi baten zatiak zeintzuk diren jakitea komeni zaizu, ezta? Adi, hemen datoz eta azalpenak.

Belaontziak haizearen indarrarekin mugitzen dira. Haizeak zenbat eta indar handiagoa izan orduan eta azkarrago mugitzen dira, aldiz haize gutxi badago ia geldirik egoten dira.

Belen tamainak ere garrantzia handia dauka. Haundiak badira haizearen indarra hobeto aprobetxatuko dute, beraz azkarrago mugituko dira.

Belak MASTIL izeneko makil luze batzuetara lotuak egoten ziren KANDELA-KONDO batzuei esker. Makil luze eta garrantzitsuenak MASTA NAGUSIA izena du.

Itsasontzia gidatzeko TIMOIA izeneko bolante antzeko bat dute.

Geratu behar dutenean AINGURA erabiltzen dute. Ontzitik botatzen da eta ur azpian dauden harrietan kateatzen da eta horrela itsasontzia geratu egiten da. Burnizkoa eta oso handia izaten da eta ikaragarri pisatzen du.

Itsasontzi guztietan ez, baina batzuetan KAMAROTEAK egoten dira, gelak alegia. Piraten ontzietan ere egoten zen eta handiena kapitainarena izaten zen.

KUBIERTA itsasontziaren gainaldeari deitzen zaio. Piraten kasuan bertan egiten zuten ia egun guztia.

Ikusi duzun bezala hiztegi berezi xamarra erabiltzen da ontzi bateko zatiak esateko. Ongi ikasi al dituzu? Ikus dezagun. Lotu zati bakoitza dagokion hitzarekin

|           |              |
|-----------|--------------|
| Aurrean   | ESTRIBORRERA |
| Atzean    | TIMOIA       |
| Eskubira  | MASTILA      |
| Ezkerrera | AINGURA      |
| Goian     | PROA         |
| Behean    | ABABORRERA   |
| Erdian    | POPA         |

Eta hau ez dakiena  
**PUTZURA!**